

Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina martxan Villabonan

Apirilaren 23tik uztailaren 23ra bitartean ekimen berria jarri du aurten martxan Beterrin Manuel Larramendi Kultur Bazkunak (MLKB, Urnietan Iñistorra) euskarazko liburuen irakurzaletasuna sustatzeko. Ekimenaren izena 'Irakurri, gozatu eta oparitu!' da, eta Andoain, Amasa-Villabona, Urnieta eta Asteasun burutuko da. Ekimen hau, berez, Euskal Herriko 26 herritan burutuko da, ezen antolatzailea MLKB kide duen Euskara Elkarteen Federazioa, Topagunea baita. Gainera, ezinbesteko gertatu da gure eskualdeko lau herrietan antolatzeko Andoain, Amasa-Villabona, Urnieta eta Asteasuko Udaletako Kultura Batzordeen eta Udal Liburutegien laguntza eta herri horietako liburudendarien lankidetzak.

Ekimenaren koska ondokoa da: uztailaren 23ra bitartean udal liburutegian euskarazko liburu bat maileguan hartu eta irakur-tzen duenari, berriz ere liburua udal liburutegira itzultzen duenean orritxo bat eskainiko diote, bizpahiru galderarekin. Galdera horiei erantzuna eman eta liburuzainaren esku jarritz gero, liburuzainak txeke edo txartel bat emango dio, eta txeke horrekin herriko liburudenda batean liburua erosi ahal izango du %25eko beherapenarekin. Erositako liburuak ere euskarazkoa behar du izan, jakina. Gainera, irakurlea Larramendi Bazkuneko bazkide baldin bada, beherapena %50ekoa izango da.